



IKASLEEN OSASUN-ZERBITZUEI BURUZKO TXOSTENA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO AZTERLAN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARITZARENA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren eskumenen artean, urriaren 16ko 222/2001 dekretuaren 12.h artikulua jarraituz, sail horretako egitura organikoa ezartzen duena dago: "ikastetxe publikoek eskatutako gai juridiko bereziei buruzko irizpenak eta txostenak egitea, unibertsitatekoak eta hezkuntza-arloan eragina dutenak izan ezik". Txosten honen bidez ikastetxeek behin eta berriz aipatzen duten alderdi bat argitu nahi dugu: irakasleek ikasleen osasun-zerbitzuei erantzun beharra.

Hain zuzen, askotan jasotzen dira unibertsitateaz kanpoko irakasleen kontsultak, galdetuz osasun-zerbitzua behar duten ikasleei derrigor erantzun behar dieten ala ez. Kontsulta horiek zuzenean edo zuzendarien bidez iristen zaizkigu eta kasu puntualei eta iraunkorrei egiten diete erreferentzia, alegia, patologia kronikoa duten haurren kasuei; zehatzago esanda, botikak eman, sendaketak egin edo bendajeak jartzeaz ari gara.

Behin gai hau jasotzen duen arautegia birpasatuta (batez ere Euskal Eskola Publikoaren Legea, EAEko Unibertsitateaz Kanpoko Irakaskuntzaren Irakasleen Kidegoko Legea eta irakasleen lan-baldintzen akordioa), ondorio gisa esan dezakegu aipatutako arau horietako bakar batean ere ez dela argi eta garbi arautzen ikasleei osasun-laguntza emateko betebeharra. Laguntza-zeregin batzuk besterik ez dira ezartzen hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleentzat. Berekin dituen berezitasunak direla medio, ez da txosten honen xedea; izan ere, kasu gehienek tratamendu berezia behar dute zailtasunak gainditzeko. Tratamendu horietan, nola ez, pertsonal espezializatuaren osasun-laguntza sartzen da, betiere kasuak horrela eskatzen badu,

Ikasturte hasiera baino lehen ikastetxeetara bidaltzen den eskutitzean ere ez dira behar bezala argitzen sortutako kezkak. Oso labur aipatzen da derrigorrezkoa



dela botikina edukitzea, nola desinfektatu behar diren instalazioak eta nola egin behar diren sendaketak; zehaztu gabe nork egin behar dituen ("dagokion sendaketa egingo da").

Hala eta guztiz ere, aipatutako berariazko erregulazio ezak ezin du ondorioztatu zuzenean aurrez ez ikusia derrigorrezkoa ez denik. Makina bat funtzio daude, inongo lege-testuetan aurreikusi gabe egon arren, irakasleen eguneroko bizitzaren parte direnak. Beraz, huskeriak alde batera utzi eta gaia ikuspegi orokorragotik bideratu beharra daukagu, azterketa-ikuspegia zabalduko duten beste iturrietara joaz.

Kode Zibilaren 156. artikulua betez, guraso-agintea, legeak gurasoei beren seme-alabengan ematen dien eskubide-multzoz bezala horiek adingabe emantzipatugabe diren bitartean, gurasoek batera erabiliko dute edo batek bakarrik bestearen berariazko edo isileko adostasunarekin; guraso horien ardurapean dauden hezkuntza eta sostengu eginbeharrak betetzea errazteko.

Hala eta guztiz ere, Kode Zibilaren 1903. artikulua betez eta jurisprudenzia-interpretazioaren arabera, ikasleak ikastetxean sartzen diren momentutik, beren eskola-jarduerak amaitu eta irteten diren arte irakasleen mende daude. Hau da, ikastetxean dauden bitartean desagertu egiten da gurasoen berezko ardura; ezin dute adingabekoaren inongo kontrol eta zaintzarik gauzatu eta zaintza betebeharrak hori ikastetxeko langileen gain geratzen da; behar bezala egiteko, eska daitekeen arreta guztia ezinbestekoa izango dute.

Beraz, adingabearen guraso edo tutoreei dagozkien betebeharren ordezkotik zereginetaz ari garenez, ondorioa garbia da: ikaslearen behar eta ekintzen zaintza edo kontrol zeregin hau irakasleek beteko dute, betiere tradizio legal zibilean "guraso on batek izango lukeen arreta" bezala definitu izan denaren berdintsua izanik.

Horri gehitu behar zaio, kasu larrien kasuan, Zigor Kodearen 195. artikuluan agindutakoa, zeinetan zigortzen duen sorospen-eginbeharra ez betetzea, arriskurik ez badakar ez berarentzat ezta besterentzat ere.



Ondorioz, behin argituta ikasleak irakasleen ardurapean dauden bitarteak irakasleak behartuta daudela ikasleak zaintzera gauza bat zehaztea falta da, eta hori da zailena. Hain zuzen ere, zer sartzen den zaintza horren barruan, zer den gehiegizkoa eta zein kasutan eman behar diren botikak. Lehen esan bezala, ez daukagu zalantzak argitzeko testu legalik; beraz, jurisprudentziara jo behar dugu.

Irakasleak zehazki aipatzen dituen epairik aurkitu ez arren, badaude beste mota batzuetako irakasleak aipatzen dituztenak, eta argumentuak estrapolatu daitezke.

Horrela, 1993ko ekainaren 16ko Auzitegi Gorenaren Lan Arloko Salaren Ebazpenean zera ezartzen da:

" Ezbairik gabe OLTei dagokie, pertsonal espezializatu bezala, botikak ematea medikuaren aginduak jarraituz baina horrek ez du esan nahi zaintzaileek (...) ezin dietenik ikasleei agindutako botika eman; betiere emate mekaniko horrek -osasan-langile teknikoak agindutakoari nahitaez atxikita- ez badakar, duda-mudazko ebazpenak baieztatzen duen modura, inolako osasan-tekniko izaerako prestamen-egintzarik (...) horrela agerian utziz lehengo funtzioak, lehen esandako zentzuan, botikak ematea jarduera mekaniko soila besterik ez dela, ikasleen zaintza eta arretari atxikia.

Modu berean, auzitegi beraren ebazpenak, 1994ko otsailaren 1ekoak, zehazten du "medikuak agindutako botikak ematea ezinbestekoa izango da medikutoxostenean argi azaltzen bada eman beharreko botiken dosia eta maiztasuna".

Zentzu berean, 1993ko ekainaren 22ko ebazpena dugu, Madrilgo Auzitegi Nagusiaren Lan Arloko Salarena:

" (...) horretarako titulazioa duten pertsonak botikak ematea aukeratu eta agintzen badute, halaber botikak ez badira bide parenteralez ematen, ulertu behar dugu ikastetxean OLTrik ez dagoenean Laguntzaile Teknikoek egin dezaketela lan hori. Izan ere, medikuaren ohar zehatzak jarraituz, edozein pertsonak egin



dezakeen zeregina da; edozein zaindari edo senidek (...) aurretiko mediku-errezetarekin, ahotik baldin bada eta eman behar den botika aukeratu edo erabaki gabe (...)"

Gure ustez, erabilitako irizpideak primeran ezarri ahal zaizkie euskal irakasleei, beste edozeini bezalaxe; gure sen onarekin erabat bat datoz eta. Azken finean, beste edozein eremu sozialetan jarraituko liratekeen arauak dira; laburbilduta honako hauek dira:

a) Irakasleen zereginen barruan sartzen da botikak banatzea. Horretarako, hainbat baldintza bete behar dira:

- Beharrezkoa izango da aurretik medikuaren errezeta edo txostena aurkeztea; bertan zehaztuta egongo dira botika emateko premia, dosia eta maiztasuna.

- Aho bidez ematen den kasuetan bakarrik izango da derrigorrezkoa (pilulak, xarabeak, etab.), ez ordea bide parenteralez (injektagarriak) ematen direnean, ezta supositorioen kasuan. Horiek osasun-langileen esku bakarrik geratuko dira, edo, behar denean, gurasoen esku.

- Sendaketak egitea eta bendajeak aldatzea ere ez da derrigorrezkoa izango, edozein pertsonak adingabea arriskuan (zauri txikien desinfekzioa, tiritak jartzea, etab.) jarri gabe erraz egin dezakeenean salbu.

b) Hala eta guztiz ere, ikaslearen bizia edo osasuna berehalako arriskuan edo arrisku larrian badago, balioetsi egin beharko da jardueraren larrialdia kasuaren egoeraren arabera. Beraz, kasu horretan irizpide horiek ez dute izaera lotesle edo aginduzkorik izango hurrari laguntza eman diezaiokeen pertsonarentzat. Modu berean, kasu bakoitzaren larrialdi eta ezaugarrien arabera balioetsi beharko da ikaslea zuzenean osasun-zentro batera eramatea, ditugun baliabideak ditugula: norberaren autoa erabili dezakegu (adibidez, kontrako eztarriaren kasuan), edo anbulantzia bat eskatu.

c) Nahiko maiz gertatzen den beste kontu arazotsua elikadura berezien beharrek sortzen dutena da. Bertan sartzen dira, batetik, elikadura-alergiak dituzten ikasleak, hau da, hainbat elikagai hartzea zehatz-mehatz debekatuta duten haurrak



eta, bestetik, elikagai bereziak hartu behar dituztenak. Ikasleak jangelan dauden bitartean haien ardura duten langileei zuzenduta dago gai hau.

Kasu hauetan guztietan osasun-txostena eskatuko zaie adingabearen gurasoei; bertan argi eta garbi agertuko da zein elikagai ez zaizkion eman behar haurrari edo zein elikagai berezi hartu behar dituen eta zein proportziotan. Osasun-partehorietan ikastetxearen zuzendaritzak zerrenda bat egingo du alergiak dituzten ikasleekin edota elikadura-behar bereziak dituztenekin, horiek zehaztuz. Gero irakasleei, sukaldeko langileei, etab. banatu die zerrenda. Horrela ikastetxeko langile guztiek jakingo dute zein hurrek duten arazoren bat, aurrerantzean saihesteko ondorio larriko balizko hanka-sartzeak.

d) Gainerako kasuetan, edozein osasun-arreta behar izanez gero, hurbileneko osasun-zentrorara eramango da ikaslea. Horretarako, guraso edo senitartekoei abisua emango zaie edo ikastetxeko langileren batek lagunduko dio ikasleari anbulatorio, osasun-zentro, etab.era joaten. Hala eta guztiz ere, premia hori ohikoa edo kronikoa balitz, ikasturte hasieran planifikatu beharko luke ikastetxearen zuzendaritzak; horrelako egoera batean zehatz-mehatz nola jokatu behar duten jakin dezaten.

Bukatzeko, esan hezkuntza-arlo guztiaren parte-hartzea komenigarria dela, bai administrazioa bai ikastetxeetako langile guztiak, azken horien prestakuntza eta ezagutza hobetzeko, gaixotasun eta istripuen prebentzioan, baita lehen laguntzan ere irakasleen etengabeko prestakuntzako programetan parte hartuz. Halaber, gaiaren garrantzia ikusita, ezinbestekoa da jarduera protokolo bat ezartzea, ikastetxe guztiena, hemen azaldutako irizpideak hartuta eta beharrezkotzat jotzen direnak erantsita.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko azaroaren 18a

Fdo.: Joseba M. MANTEROLA GARRASTATXU
DIRECCIÓN DE ESTUDIOS Y RÉGIMEN JURÍDICO

Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza